

Zuhaitza
Muz. deba

euskara
elkartea

berriketan.eus


Berriketan

Debako herri aldizkaria

278. alea - 2022ko azaroa


| Benito Lertxundi musikaria

“Beti pentsatu izan dut kantagintzaren egia zuzenekoa dela”



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE.BOHÈM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAZ



278. alea - 2022ko azaroa

AURKIBIDEA



KOLABORAZIOA | 6

Debako Gazte
Asanbladak
22 urte
bete ditu aurten



ELKARRIZKETA | 10

Aitzol Arakistain
pilotuaren kirol
ibilbidea
eta lorpenak hizpide



ALBISTEA | 12

Martxa onean doaz
Santa Maria
eliz atariko
kontserbazio lanak



ELKARRIZKETA | 14

Benito Lertxundirekin
solasean, Deban
gingo duen saioa
aitzaki hartuta



GEHIGARRIA | 17

57. Durangoko Azokak
"eztanDA!" egingo du
abenduaren 7tik 11ra
(DKTren gehigarria)

Berriketan

Zuhatzza
euskara
elkartea

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatzza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatzza.com

Argitaratzailea:

Zuhatzza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Gertu

ISSN 2171-7656

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salbuondetarako) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Informatika Tresneria informatikoa

Elektronika Osagai elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda
"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6 • 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20 • E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

ENDANETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

Juli: *virtus et labor*

Joan den San Martin egunaren ilun-tzean Kale Zaharreko Juli Ajuriaren hileta elizkizunera batu naiz. Pena handiz, batetik. Bestetik, ordea, nahiz eta neure burua sekula ezin izan dudana fededuntzat aitortu, Debako eliza handiak niretzat badaukan ama baten sabel beroaren sentimenduak ninderaman, gozotasunez.

Hiletan alderdi askori eta bazter askori erreparatu diet. Halako uneetan burutazioak bata bestearen atzetik lotzen dira. Juli izan den emakume langilearentzat Zubeltzutarren kapera argitan mantentzea sinbolo esanguratsua iruditu zait: esku batean gorua eta bestean ardatza, hango beiratean ari da irulea, lan eta lan, betiko. Patxi abadeak diskrezioa eta umiltasuna zerabiltzan, kurioso-kurioso, hilaren omenez ezin gokiago. Seme-alabek estudiatzeari

eta Julik ikasketei eman zien garrantziaz ere jardun zuen. Irulearenaren parean baina elizaren eskuineko aldean, Sasiolarren kaperako ateburuari begiratzen nion. Urre zahar koloreko ateburu haren barruko aldetik *virtus et labor vera nobilitas* dio: bertutea eta lana benetako noblezia. Sasoi batean geuk ere latin apur bat ikasi genuen eta gero herriko eliza osoago disfrutatu ahal izan dugu ordukoari esker. Inoiz ez dakizu txoriaren hegada non pausatze-koa den.

Eserlekuen erdialdean Felisa ikusidut. Poztasuna eragin dit. Kale Zaharreko amama zenaren etxean kartetara batzen zirenetatik tia Isabel eta Felisa bakarrik gelditzen dira. Etxeak berak ere ez du iraun. Lana, diozu? Zenbat lan eginak ote dira emakume haiek? Pisutan neurtzerik balego, guta-

ko zenbaten eta zenbaten artean jaso ezinda behar genuke karga hura guztia?

San Martin eguna zen. San Martin egunean betetzen zituen gure ama Martinak urteak. Urte luzetan urre-diamantezko hari finez josi zen Juliren eta Martinaren, Martinaren eta Juliren elkarrenganako estimua. Ederki zekiten norbere eta bestearen ahalegina eta bizimodu zer izana zen, baina eurek egin beharrekotzat zeukatenarekin kunplizteza harrotzeko batere arrazoi ez zela ere barne-barneraino sartuta zeramaten. Juliren eta Martinaren apaltasunak miresmena hurkoarentzat baino ez zuen ametitzen.

Zain egon nintzen. *Agur Jesusen ama ez zen abestu. Neure baitan "Agur amarene/ agur, agur, agur!"* bientzat kantatu nuen barrutik.

Enrike Izagirre

ekodenda,
dieta,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologia Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunidadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Migratzailearen Eguna abenduaren 18an

Nazio Batuen Erakundeak 2000ko abenduaren 18a Migratzailearen Eguna izendatu zuen. Migrazioa ez da gertara iragankorra, egiturazko errealitatea baizik. Immigrazioa fenomeno globala den arren, integrazioa, gizarte-kohesioa eta bizikidetzaren hurbileko espazioan kudeatzen dira neurri handi batean, udalerrietan. Udalerrietan zehazten dira herritarren arteko eguneroko harremanak eta integrazioa gauzatzen da, elkarbizitza egokia ahalbidetzen duten ekintzekin.

Deba-Itziar hartzaile

Harrera egiteak aipamena egiten dio giza eskubideetako bati, gizaki guztien duintasunari. Gizaki izate hutsagatik, beste edozein baldintza kontuan izan gabe, gure herrian bizi diren pertsona guztiei dagokie, euren nazionalitatea, jatorria edo egoera administratiboa edozein delarik ere.

Deba-Itziar barneratzaile

Aldi bereko izatea emana dago, baina bizikidetzaren ez da era naturalean gauzatzen. Zaila da ezagutzen ez dena onartzea. Horregatik, garrantzitsua da elkarrekintza, harreman eta kontakizun desberdinen ezagutzarako tokiak nahiz baliabideak sustatzea, eta aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea. Bizikidetzaren egunetik egunera eraikitzen den esperientzia da, eremu komunak partekatuz, elkarriketaren, errespetuaren eta elkarren arteko onarpenaren bidez. Topaguneak ditugu eskolan, kiroldegian, lantegietan, dendetan, auzoetan, kalean. Beste egoera batzuk ere sustatu daitezke: jatorri desberdineko esperientziak trukatzeko, elkartzeko lokal bat izatea (zaintzaileren artean bereziki), eta abar.

Egoiliar migratzaileei dagokienean, ezingo da benetako integrazioa lortu ez baldin badugu beren herritartasuna onartzen eta ez baldin baditugu titulartasun eta herritarren eskubide eta betebeharrak errespetatzen. Etorkinek zeregin eraginkorra izan beharko lukete gizarte eragile gisa eta gai izan



beharko lukete gure gizarte sistemari elementu eraldatzaileak emateko.



Esperientzi desberdinek, historikoez eta garaikideez, erakusten digute gizarte-kohesio baterako zein arriskutsua den aniztasuna ikusezin bihurtzea eta desberdintasunak normalizatzea. Kontua ez da denok gauza bera pentsatzea eta sinestea, edo estilo berdineko bizitza egitea, baizik eta berdintasunean hitz egiteko borondatea izatea, elkarlanerako prest egotea, elkarrengandik ikastea, proiektu partekatuetan egiteko gai izatea. Inklusioak berdina ezberdin bezala hartzen ditu eta ezberdinak berdina bezala.

Zein da aniztasunaren balio handiena? Pertsonen beste edozein gauzari baino garrantzi handiagoa ematea, baita aniztasuna norbanakoen baitan dagoela konturatzeko ere. Deba-Itziar bide inklusiboak aniztasunarekiko begirunea dakar, pertsonen arteko ezberdintasuna gainditzea; giza eskubideak abiapuntutzat hartzen ditu, gizarte eta bizikidetzaren justuago bat lortzeko.

“Atzerriaren Legea” da herri migranteen integrazioarako eragozpenik handiena. Ehunka erakundek eta pertsonak sinatu dute legea kentzeko eskaera.

Denon artean egiten dugu Deba-Itziar.

Jose Luis Albizu



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

RPS: 183/12

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Iturkale 2 beheka - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31



REXU ARAKISTAIN

Goizaldean

Asko kostatzen zitzaion goizean jaikitzea. "Zer da hori?", esan zuen Haziak bere ohean eserita zegoela, ordura arte ez zuen entzun sekula santan halako zarata goxorik; oso goiz zen eta kristoren isiltasuna zegoen etxean, eguzkia irten berri zen.

Zerua oso estalia zegoen, ihintz tantek diamanteek bezala distira egiten zuten belar gainean. Salto bat eginez irten zen ohetik, eta ezin izan zuen jakin soinu goxo ura nondik ateratzen zen.

Iratxo bat izan daiteke? Ia ez dira geratzen eta gainera gauzez irteten dira eta goizez etxeratu.

Mari Karmen izeneko izeko prest zegoen goizero iratxo bila elkarrekin irteteko. Eguna etorri eta eguna joan eta, iratxorik ez. Goiz batean katutxo bat ikusi zuten bere kumetxoa ahoan zera-mala, beste goiz batean txakurtxo bat titia ematen bere kumetxoei, eta hurrengo batean oiloa kakaraka arrautza ipini ondoren, eta txoriak, berriz, zer esanik ez. Goizean berandu jaikitzean iratxoen eta dena ahaztu zitzaion.

Azkar eta asko doa dena aldatzen. Orain iratxoak goizean irteten dira bate-re magia gabe, burua tente-tente dutela herria berena bakarrik balitz bezala. Umeak gutxitu eta txakurrak gehitu. Beharbada atzera goaz? Kuku txoria izan ezik. Horrek beti kantu berdina, eta inoren kabian arrautza utziz; esaten dute etxe denetan dagoela kuku bat, eta, batzuetan, bi ere bai. Orain, berriz, ume-xoei izena jartzeko arazoak. Aspaldi batean entzunda daukat "Tigre" nahi ziola ipini, baina ezin zela, eta honela zioen interesatuak. Nola? Tigre ez eta Leon bai? Gure herrian Leon izeneko gizon jator bat ezagutu nuen eta inoiz ez zuen eman atzaparkadarik.

22 urte betetzen ditu aurten Debako Gazte Asanbladak



Debako Gazte Asanbladak 22 urte betetzen ditu aurten eta, bi hamarkada eta bi urteko ibilbide hau ospatzeko asmoz, bi asteburuko egitaraua prestatu dugu gazte asanbladako kideok. Hori dela eta, gustu eta adin tarte ezberdineko herritarrei gonbita egin diegu urtemugarekin bat egin eta gurekin batera ospa dezaten.

Azaroaren 11n eman genien hasiera ospakizunei, haur eta gazteenentzako txokoa antolatuz, Kolore Anitz Aisialdi Taldearen eskutik dantza eta jolasean leher egin arte. Ondoren, txokolate bero eder bat hartzeko aukera izan genuen udaletxeko arkupeetan.

Txokolate goxoaren zaporea oraindik ere gogoan genuela, asanbladako egungo kideen eta kide ohien bazkaria egin genuen gaztetxean hurrengo egunean, larunbatean. Mahaiaren bueltan, azken 22 urteotan gazte asanbladaren historiaren parte izan diren eta oraindik ere historiaren parte garen kideok batu ginen. Solasaldi, pasadizo eta kantak partekatuz ibili ginen ordu luzez eta, biharamunean, urtemugaren egitarauaren baitan bertan berriz elkar ikusteko asmoz agurtu genuen gaztetxea.

Hilaren 13ko eguzki beroaren azken izpiak joan aurretik, intentsitate eta kolore ezberdineko argiak piztuta zeuden gaztetxeko aretoan. Maider Lasaren *Loa Loa Laguna* ikuskizunaren aitzakian, uraren zaratak, kantu ederrekin eta Maiderren gorputzaren mugimenduekin egin zieten konpainia argiei, gaztetxera gerturatu ginenon begiradapean. Argi guztiak piztean ondo mere-

zitako txalo-zaparradak bete zuen gaztetxea, eta igande gauak laster handik martxa egiteko gonbita egin zigun.

Lasai egin genuen etxerako bidea, urtemugak hasiera ezin hobea izan zuela jakinda eta geure buruari errepikatuz oraindik ere gozatu eta partekatzeko beste horrenbeste edo gehiago izango genuela hurrengo asteburuan.

Izan ere, azaroaren 18an Aitor Sarriegi eta Eñaut Martikorenak alaitutako bertso afaria izan genuen Arranon. Hurrengo egunean, berriz, herri osoa kantuan eta dantzan jartzea izan zen asmoa. Eguerdian, Euskeraz Bagera eta Euskaraldiarekin bat eginez, Kalean Kantuz-eko kideekin ibili ginen, ezarria *hamabitako* ederraz berotu ondoren. Eta, arratsaldean, Que Toque El De Alau txarangaren erritmora hasi ginen gorputza berotzen, betiere gauean gaztetxeko kontzertuetan lesionatu gabe dantza egin ahal izateko; Coast Rebels, Bide Batez eta DJ Kemena-k markatu ziguten erritmoa.

Eskerrik asko

Gaztetxean beste noizbait topo egingo dugulakoan, eskerrak eman nahi dizkiegu urtemuga hau posible egin duten talde eta norbanako guztiei, baita asanblada 22 urtez bizirik mantendu duten kideei eta gertukoei ere.

Bide batez, duela pare bat urtemugako leloa gogora ekarriz, herriko gazteei gazte asanbladara batzeko deia egiten diegu; badakizue, *gazte edo ez hainbeste, antolatu zaitzete!*

Debako Gazte Asanblada

Egunotan hasiko dituzte Osio kaleko sarrera eta irteera hobetzeko lanak

Debako Udalak jakitera eman duenez, lanak egingo dituzte Osio kalearen sarreran, ibilgailuen sarrera eta irteerak hobetzeko helburuarekin. Tokiko erakundeko iturriek azpimarratu dutenez, “udal gobernuak hartutako konpromisoa beteko da horrela”.

Lanak azaroaren 21etik 27rako astean hasiko direla iragarri dute, eta lau fasetan burutuko dituzte; aurreikuspenen arabera, astebete inguru iraungo dute fase bakoitzeko lanek. Obra Egurki Eraikuntzak enpresari esleitu diote, eta 141.262,16 euroko (BEZ barne) aurrekontua du.

Lehen fasean, esaterako, agerian dauden instalazioak (argiteria publikoa, argi eta telefonia konpainien instalazioak...) behin-behinean desbideratzea eta amiantoa kentzea izango da helburua. “Lehen aurreikuspena da lanak astebetean egitea, baina gerta daiteke konexio elektrikoekin denbora gehiago behar izatea. Hortaz, lehen fase honen iraupenak baldintzatuko ditu hurrengoaren hasiera datak”.

Bigarren fasean, berriz, Osio kaleko 2. zenbakiko etxea eraitsiko dute.



“Segurtasuna bermatze aldera, jaurtiketen aurkako errezelekin eraitsiko dira eraikinaren fatxadak”. Lanak segurtasunez burutu ahal izateko errepide nagusiko bide bat ere moztuko dute, eta Osion sartzeko eta ateratzeko nahikoa lekurik ez denez egongo, Astillero kaletik txandaka bideratuko dute zirkulazioa.

Hirugarren fasean, aldiz, eraitsitako etxearen hondakinen sailkatzeari ekingo diote. Guztiarekin amaitzeko, proiektatutako urbanizazioa egingo dute. “Agerian zeuden kable guztiak lurperatu, eta asfaltatze lanak eta margotze lanak egitea aurreikusten da fase honetan”.

Indarkeria matxista desagerrarazteko beharra aldarrikatuko dute azaroaren 25ean

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguneko kanpaina erakundeen artekoa izango da aurten. Kanpaina bateratuak zuzenean hitz egiten die gizonei eta gogoratzen die “bakarrik bai dela baietz” eta “ezetz esateko modu asko daudela, baina bat bakarra ulertzeko”.

Testuinguru horretan, askotariko ezaugarriak dituzten hainbat ekimen antolatu ditu Debako Udalak. Aurten garrantzi berezia eman nahi izan diote gizonek duten paperari, eta, horrekin lotuta, gizonei, maskulinitateei eta botereari buruz hausnartzeko bi saio egin zituzten azaroaren 10ean eta 11n.

Urtero modura, gainera, udalak adierazpen instituzionala onartu du eta azaroaren 25ean 19:00etan Foruen Plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko dei berezia egin du. Jarraian, Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute. Aurtengo proposamenak hilaren 27ko kontalarrien saioarekin amaituko dituzte.

iritzia



LANDER ARANBERRI

Elkano eta Iñaki

Boikotak eta bidezko salaketak eginatik, zutabe hau irakurtzen ari zarenerako, gizonezkoen Qatarreko Mundiala beste konturik ez dugu edukiko batean eta bestean. Horoskoporik eta tarotik gabe ere, garaian entzungo ditugun eztabaidak aurreikusteko erraz samarrak dira: ea zer-

gatik ez garen ofizial, ea zein selekzio animatu behar dugun... Izango da, Iñaki Williamsen presentzia dela eta, Ghanaren alde egingo duenik ere.

Elkanoren urtea izan da aurtengoa. Tira, Elkanorena baino gehiago, bidaia haren kontura eraikitako mitoarena. Harrabotsa ekarri du, nolana ere, euskaldunok inperialismo espainiar eta frantsesaren izandako partaidetzak. Ez ginen gure zapaltzaileekiko hain diferenteak izan (baita buru ere, sarri), itxuraz; azalaren kolorearen komeriak. Bitxiak izan dira, era berean, Mexiko edo Argentinako zuri zenbaiten erreakzio sutsuak, erantzukizun eske. Ukaezina da inperialismo kolonialak haien gainean utzitako arrastoa, nola ez. Hori bai, euren estatuetako nahuatl eta kitxua hiztunen gainean, gustura entzungo nituzke hizketan. Oraindaino, antzinako kolonien muga, administrazio zein egitura

sozio-ekonomiko koloniarrek bere horretan dihardute; eta bertako eliteek, kolonizatuetatik baino gehiago dute Ostolazatik. Afrikar potentzia zen Akan inperioa Ghana modernoaren zati bat besterik ez da gaur; *in english*, noski. Ez dut uste Nkrumah honen bila zebilenik.

Gure zillor europarretatik sortutako mundu honek eraiki dituen disfuncionalitate menperatzaileek bere horretan bi mende beranduago ere. Guregana milioika jende jaurtitzen dituzten disfuncionalitateak dira, egunkarietan ordezkapen handi arrazistak aipatuagatik gugana berdin-berdin ekarriko gaituztenak. Deba eta Madrilek zerikusi gutxi dutela azaltzen saiatzen garenean, ez dezagun ahaztu Jujuy ez dela Buenos Aires, edo Mariupol ez dela Lviv.

Bitartean, Al Jazeeraatik informatu beharko dugu. Aupa Iñaki(ak).



ARANTZA IRIONDO

Neu izanez

2022ko BEGIRADAK saioan berak idatzitako kantu eder bat eskaini zigun Iraia Agirrezabalak.

Saioan ikus-entzule izan arren, baliteke askok ez gogoratzea hark kantatutakoa. Baina, nire ustez, egunerok ez bada ere, sarri entzun beharko genukeen abestia da eta bertan esandakoa kontuan hartu.

Ez dut abesti osoa hemen idatziko, baina bai behin baino gehiagotan errepikatu zituen leloak:

“Haizeak bezala eginez dantza, baina nik aukeratuko dut norantza. Haizeak bezala eginez dantza neu izanez” eta “haizeak bezala eginez dantza, baina sortzen zaizkit hainbeste zalantza utzidazu hanka sartzen neu izanez”.

Gurasoa naiz eta seme-alabak hazita baditut ere, oraindik neure moldera ekarri nahi izaten ditut askotan; alegia, nola jantzi, zer jan, nondik nora ibili, norekin... gogoratu gabe izaki independenteak direla eta erabakiak hartzeko eta hanka sartzeko eskubidea dutela aspaldi.

Seme-alabak txikiak direnean gure zereginetako bat haien gidari izatea da eta baliabideak eskaintzea etorkizuneari nahi dutena izan daitezen. Hala ere, susmoa dut hazten doazen neurrian, “guk” nahi duguna izan daitezen ahaleginak egiten ditugula sarri (edo ez daitezen izan guk nahi ez duguna). Susmoa dut haien kabuz erabakiak hartzen berandu “uzten” diegula eta gure nahia inposatzeko gogoak luze jotzen duela.

Inoren etxean sartzeko asmorik gabe animatu nahi zaituztet Iraiaren abestia entzuteri eta interpretatzera.

2022-2025 Kulturarteko Bizikidetzarako Plana egin du Debako Udalak

Migrazio fluxuen ondorioz, azken hogeitun urteetan aldaketa demografiko eta sozial esanguratsuak izan dira EAEn eta, udal gobernuaren esanetan, “Debako herria ez da salbuespena izan eta pertsona etorkin atzerritarren etorrerak eragindako aldaketak nabarmenak izan dira hemen ere”.

Hori hala, Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren eta Begirune Fundazioaren laguntzarekin, Debako Udalak “kultura-aniztasunaren kudeaketaren aldeko apustua” egin duela nabarmendu du. Udalerriko gizarte eragileekin eta migrazioen eta gizarte-ekintzaren arloan lanean diharduten herritarrekin bildu ondoren, prozesu horretatik jaio diren “Debako immigrazioaren gaur egungo egoeraren diagnostia” eta 2022-2025 Kulturarteko Bizikidetzarako Plana aurkeztu berri ditu jendaurrean.

Deban egindako diagnostian bildutako datuen arabera, udalerrian bizi diren pertsona guztien % 8,5 atzerrian jaio dira. Hortaz, ondorioztatu dute immigrazioa ez dela fenomeno puntual bat izan, prozesu estruktural bat baizik; azken hogeitun urteetan 450 pertsonatan handitu da jatorri atzerritarra duten herritarren kopurua.



Arreta pertsona horien ezaugarrietan jarritik, atera daitekeen ondorioa da lan egitera etorri direla gurera, herritar horien erdiak 25 eta 44 urte artean baititu (% 47,6). Jatorriari dagokionean, berriz, atzerrian jaio diren debar berrien gehiengoa (% 54,1) Latinoamerikan jaioa da -Nikaragua eta Bolivia dira jatorri nagusiak-.

Udalaren iritziz, “Debako auzotarraren osaera gero eta askotarikoagoa den testuinguru honetan, Kulturarteko Bizikidetzarako Planak kultura-aniztasun gero eta handiago hori kudeatzea bilatzen du, immigrazioaren eta bizikidetzaren eremuko ekintza politikoaren etorkizuneko ardatzak ezarritik”. Planak datozen urteetan garatu nahi dituzten hogeitun jarduerak biltzen ditu guztira bere baitan, lau lan eremutan banatuta.

Martxan da bizitegi-egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboa

Debako udalbatzak urriko ohiko osoko bilkuran berretsi zuen Mendaroko adinekoren udal-ostatu zerbitzua kudeatu eta erabiltzeko Mendaro, Elgoibar, Mutriku eta Debako udalen arteko lankidetzaren hitzarmena.

Neguko dispositiboa laguntza-intentsitate txikiago zerbitzua da, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eskaintzen zaiena, batez ere pasadizoko jendea eta etxerik gabekoei. Finean, gaua igarotzeko baliabide bat da, berehalako izaera duena; gaua igarotzeko, mantentzeko eta higiene pertsonalerako oinarriko prestazioak eta laguntza eskaintzen dituzte bertan.

Udalak azaldutakoaren arabera, egonaldi ertaineko gelak ere baditu,

baztertuta dauden eta eskualdeko gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten pertsonentzat, “baldin eta erreferentziako profesionalak baliabide horretan sartzea agintzen badu”. “Sartzeko ezinbesteko baldintza izango da pertsona horrek esku hartzeko plan pertsonalizatu batean parte hartzea”, argitu du.

Guztira hamalau plaza arrunt eskaintzen dituzte, beste sei plaza garai hotzetan aktibatzeko eta beste lau egonaldi ertainetarako. Plaza horien osaera beharren arabera alda daiteke, eta eguraldi txarra dagoenean plaza gehiago eskainiko direla adierazi dute.

Zerbitzua 2023ko apirilaren 15era arte erabili ahal izango da, 20:00etatik 10:00etara.

Elene Ramirezek urrezko domina lortu du bere taldekideekin Euskalgym 2022an



Elene Ramirez gimnastikari debarrak urriaren 28tik 30era BECen egin zen Euskalgym txapelketa irabazi du; Naroa Alonso, June Araujo, Elene Lazpita eta Nahia San Martin Eibarko Ipurua gimnasia klubeko gazte mailako oinarrizko taldekideekin erdietsi du urrezko domina. Taldeko arduradunen esanetan, bi uztai eta hiru maza parekin egindako "lan bikainaren fruitua" da Euskalgymen lortutako emaitza.

Euskal Herri eta Espainia mailan egiten den txapelketarik entzutetsuenetakoan lortutako garaipen horri esker, gainera, azaroaren 9tik 13ra Jerez de la Fronteran (Cadiz, Espainia) joko-

tu zen oinarrizko taldeen Espainiako Txapelketarako sailkatu ziren Ramirez eta haren taldekideak. Taldea hilaren 11n ateratzen tapizera, eta parte hartu zuten 130 taldeen artean 10. postuan amaitu zuen lehia. "Lortutako emaitzarekin oso harro gaude. Zaila izan den denboraldiari amaiera bikaina eman diogu", adierazi dute talde tekniko arduradunek.

Taldea denboraldi biribila egiten ari da. Ikasturtea hasi denetik hainbat txapelketa jokatu dira, eta horietan hainbat lorpen izan dituzte; besteak beste, Gipuzkoako txapelketa urrea eta Euskadikoan zilarra eskuratu dituzte.

Arrakastatsua izan da Deban egin den futbol egokituko topaketa



Gipuzkoako Futbol Federazioaren ekimenez, eta Amaiak Bat-ekin lankidetzan, futbol egokituko topaketa egin zuten azaroaren 20an Errotazarren. Iaz abiatutako futbol egokitu eta inklusiborako planaren barruan kokatzen da ekimena. Antolatzaileen esanetan, "arrakastatsua" izan zen topaketa. "Lurralde osotik etorritako 9 eta 21 urte bitarteko 50 partaide inguru batu ziren eta, hiru taldetan banatuta, entrenamendu saio antzerako bat osatu zuten giroan".

Herriko crossfit atletek maila ona erakutsi dute Basque Crossfit Txapelketan



Azaroaren 4, 5 eta 6an Bilbon jokatu zen Basque Crossfit Txapelketa banaka parte hartu zuten Aitor Ibarluzeak eta Ane eta Iñigo Falagan neba-arreba debarrak, eta, erakutsi zuten maila onari esker, guztiek final handian sartzea lortu zuten.

Ane Falaganek eskuratu zuen emaitzarik azpimarragarriena. Emakumezkoen eskalada kategorian lehiatu zen, eta 526 puntu eskuratuta, bigarren postua lortu zuen; irabazleak baino 12 puntu gutxiago eskuratu zituen eta hurrengo sailkatuak baino 40 gehiago. "Aurkarien maila ikusita, hirugarren postua lortzea espero zuen, baina bigarren postua lortu zuela jakin zuenean, sekulako ezustekoa hartu zuen", azaldu du bere nebak.

Iñigo Falaganek eta Aitor Ibarluzeak ere txapelketa ona egin zuten, baina ez zuten podiumean sartzea lortu. Falagan gizonzkoen RX kategorian lehiatu zen, eta 493 puntu lortuta, laugarren postuan sailkatu zen. Lehen hiru sailkatuengandik oso puntu gutxira amaitu zuen, eta hasiera batean "pena" sentitu bazuen ere, "pozik" amaitu duela azaldu du; hirugarren sailkatuak baino 8 puntu gutxiago lortu zituen, eta lehen bi sailkatuek baino 13 gutxiago. "Hainbeste ahalegin egin ondoren, momentuan pena sentitu nuen, baina orain pozik nago. Laugarren postua, egia esan, oso emaitza ona da".

Ibarluzeak lehen aldian izan du txapelketa ofizial batean parte hartzen. Gizonzkoen eskalada kategorian lehiatu zen, eta, 419 puntu lortuta, bosgarren postua lortu zuen; laugarren sailkatuak baino 4 puntu gutxiago eskuratu zituen. "Egia esan, ez zuen hain emaitza ona espero. Oso pozik geratu da".

Aitzol Arakistain pilotua

“Ematen ez duen arren, uretako motor bat gidatzeak esfortzu fisiko handia eskatzen du”

Motor munduarekin lotura estua dauka Aitzol Arakistainek. Auto lasterketetan lehiatzen hasi bazen ere, arriskutsua zela eta, autoa saldu eta uretako motor bat erosi zuen duela 25 urte. Lehiatzen jarraitzeko asmorik ez bazuen ere, lagunek bultzatuta, lasterketa batean parte hartzea erabaki zuen, eta horrek lehiarako grina piztu zion berriro. Orduz geroztik ehunka probatan parte hartu du, baita emaitza onak lortu ere. Bestek beste, Europako Txapelketa bat irabazi eta munduko bi txapelketetan parte hartzeko aukera eduki du.



Nolakoak izan ziren zure hastapenak?

Parte hartu nuen lehenengo lasterketa 5. postuan amaitu nuen, eta hortik aurrera lasterketa guztietara joaten hasi nintzen. Garai hartan orain baino lasterketa gehiago antolatzen ziren, gehienak Mediterraneo itsasoan izaten ziren, eta, nahiz eta kilometro asko egin behar izan, gustura aritzen nintzen.

Orain artean zer kategoriatan lehiatu izan zara?

Kategoria eta modalitate guztietan lehiatu naiz, baina horietan guztietan Offshore F1 deritzona da nire gogokoa. Kategoria horretan pilotuaren trebeziak garrantzi handia dauka, baina baita motorraren mekanikak ere. Nire kasuan, motorrari egin beharreko aldaketa guztiak nik egiten dizkiot. Maila teknikoan garatzen joatea oso motibagarria da mekanika aldetik, batez ere, motorraren portaera eta itsasoa lor daitekeen abiadura hobetzeko. Hori guztia garatzeko proba asko egin behar dira, eta horrek ordu asko eskatzen ditu tailerrean. Aldaketa horiek, baina, beste ondorio bat ere badute.

Zein ondorio?

Motorra hainbeste ukitzeak guztia mugara eramaten du, eta, horren ondorioz, lasterketetan arazo mekanikoak maizago sortzen dira. Askotan, lasterketa erdian motorra izorratu eta etxera esku hutsik ere bueltatu behar izan gara.

Non lehiatzeko aukera izan duzu?

Gehienbat Espainiako txapelketetan parte hartu izan dut. Galizian eta Asturiasen lasterketa bana jokatzeko da, eta gainontzeko guztiak Mediterraneo itsasoan izaten dira, Murtzian batez

ere. Hango itsasoa hemengoa baino bareagoa da, eta hori guri ez zaigu ondo etortzen. Itsasoa bare dagoenean, motorrak du protagonismo handiena lortutako emaitzan. Itsasoa mugituagoa dagoenean, eta gu baldintza horietara ohituagoak gaudenez, postu hobeak lortzen ditugu. Europako txapelketetan ere aritu izan gara. Hainbat urtetan Frantziako Oleron uhartera inguratzen zuen lasterketa batean parte hartu izan dugu eta Cavalieren ere izan gara. Grezian ere bi aldiz egon gara, eta Portugalgo Algarvean ere beste bi urtetan aritu gara. Guadalupera joan gara urrutien; Karibeko itsasoan kokatua dagoen irla frantses horretan antolatzen den munduko txapelketan bi aldiz parte hartu dugu.

Hain urrutira joatea ez da erraza izango.

Logistika aldetik prestakuntza handia eskatzen du. Motorra lasterketa baino hila-bete lehenago itsasoz bidali behar izaten da edukiontzi batean, eta baimen aldetik ere gauzak nahiko zailtzen dira.

Eta nolako emaitza lortu zenuen bertan?

Bi urteetan ez nuen zorte handirik izan. Mekanika aldetik arazoak eduki genituen, eta ezin izan genuen lasterketa amaitu. Hala ere, esperientzia ona izan zen.

Zeintzuk izan dira orain arte lortu dituzun emaitzarik azpimarragarrienak?

Duela urte batzuk Europako Txapelketa irabazi nuen Portimaon (Portugal). Greziako Jet Raid-ean ere emaitza ona lortu nuen, hirugarren amaitu nuen. Paris Dakarren antzeko proba bat da; bost egunetan burutu zen proba, eta GPS bidez uharte desberdinetatik nabigatu behar izan genuen; guztira,

“Errege Kopan lortutako emaitzei esker, Espainiako Txapelketako 4. postuari eutsi ahal izan nion”

1.200 km egin genituen. Nahiz eta oso gogorak izan, mota honetako probak dira nire gustukoena. Beraz, sailkapenean goian egoteak ilusio berezia egin zidan.

GP1 kategoria nagusian lehiatzen zara orain; zehazki, Offshore eta Rallyjet modalitateetan. Zein duzu nahiago?

Distantzia luzeko Offshore probak ditut gogokoen. Espainia mailan, baina, mota horretako gero eta proba gutxiago antolatzen dira azkenaldian. Hori dela eta, zirkuituko edo Rallyjet modalitatean ere parte hartzen dut orain.

Bistan da abiadura gustuko duzula. Uretan ez ezik, lurrean ere beste motor kirol batzuetan ere aritu izan zara, ezta?

Txikitatik datorkit ibilgailu motordunetikiko zaletasuna. Aita ere oso motorzalea zen, eta, egia esan, berak sartu ninduen mundu honetan. Gaztetan gidatzeko karneta atera orduko hasi nintzen auto lasterketetan parte hartzen.

Zer motatako motor probak iruditzen zaizkizu erakargarriagoak, uretakoak ala lurrekoak?

Duela urte asko utzi nion auto lasterketetan parte hartzeari, baina igoera bat ikustera joaten naizenean inbidia puntu bat sentitzen dut. Egia esan, uretako motorretako lasterketetako exijentzia fisikoa gehiegizkoa iruditzen zaidanean, beharbada, auto lasterketetara bueltatuko naiz; aukera horri ez nioke ezetik esango.

Nolakoa da uretako motor bat gidatzea?

Ematen ez duen arren, uretako motor bat gidatzeak esfortzu fisikoa handia eskatzen du, batez ere, itsasoko baldintzak txarrak direnean. Abiadura handian 130 km/h zoazenean eta olatuetan ematen dituzun saltoekin motorra menderatzea ez da erraza izaten. Behin baino gehiagotan erori izan naiz, eta, azkar joaterakoan, kolpeak ez dira edonolakoak. Gidatzeko orduan motorraren ezaugarriek ere garrantzi handia daukate. Abiadura handia hartzen duten motorrak daude, baina horiek kontrolaezinak dira itsaso txarra dagoenean, eta beste batzuk, ordea, egonkortasun handiagoa dute itsasoa mugitua dagoenean.

Nolakoa da orain lehiatzeko erabiltzen duzun motorra?

Kawasaki Ultra bat erabiltzen dut orain. Bere ezaugarri nagusia da motorrak duen kroskoari esker, itsaso baldintza txarretan oso ondo moldatzen dela. Itsasoa bare dagoenean abiadura handiagoa hartzen duten beste marka batzuk ere badaude, baina nireari egin dizkiogun moldaketei esker, nahiko gertu ibiltzen gara; 400 zaldiko potentzia edukitzeria iristen da eta 130 km/h abiadura lor dezake.

Aurtengo denboraldiari buruzko zer balorazio egiten duzu?

Ez nuen oso ondo hasi. Lehenengo lasterketako bigarren txandan istripu bat eduki nuen, eta ezin izan nuen jarraitu, lehenengo postuan nindoanean. Laku batean antolatutako beste lasterketa batera ere ezin izan nintzen joan. Horri guztiari Espainiako Txapelketako azken proban buelta eman nion. Mazarronen (Murtzia) antolatutako Errege Kopan bigarren postua lortu nuen parte hartu nuen bi modalitateetan. Itsasoaren baldintza onak ikusita, egia esan, ez nuen espero hain emaitza onak lortzea. Offshore eta Rallyjet probetan oso irteera onak

egin nituen, eta, horri utsita, bi zilar irabazi nituen. Errege Kopan lortutako emaitzei esker, Espainiako Txapelketako 4. postuari eutsi ahal izan nion. Denboraldian gertatutakoak kontuan hartuta, nahiko emaitza ona iruditzen zait.

Basque Raiders Club Motonautika klubaren sortzaileetako bat ere bazara.

Orain dela urte batzuk sortu genuen kluba. Bultzatzaile nagusienak Durangoko Andoni Gutierrez eta Alba Bermejo izan dira; dirulaguntza aldetik gauza asko lortu dituzte. Gaur egun, hamar pilotu gaude klubean, eta Espainia mailan emaitza oso onak lortzen ari gara. Lehiatu ginen azken txapelketaren podiumean ikurrin asko ikusten ziren, eta hori seinale ona da. Horrez gain, Euskal Uretako Motorren Federazioa ere abian jartzea lortu dugu; hainbat erakunderekin elkarlanean gabilta, kirol hau sustatzeko eta laguntzak lortzeko.

Eta hurrengo denboraldiari begira, zer asmo daukazu?

Izugarritzko erronka daukagu esku artean. Basque Riders kluba eta Euskal Federazioa Getarian burutuko den Europa mailako txapelketa antolatzen ari gara elkarlanean. Egin beharreko lana izugarria da, eta baimenak lortzea ere ez da erraza, baina bide onean goazela dirudi. Dagoeneko hainbat udalen eta erakunderen laguntzak lortu ditugu. Getariako lasterketa aurrera ateraz gero, Europako Txapelketako lehen proba izango da; proga gogorra izango da, bai kilometro aldetik eta baita antolakuntza aldetik ere. Atzerriko pilotuentzako erakargarria izatea eta parte-hartze handia lortzea espero dugu. Niri dago-kidanean, Kroazian eta Suedian antolatutako diren Europako probetara joatea gustatuko litzaidake, baita Greziako Jet Raid lasterketara ere.



Martxa onean doaz Santa Maria eliz atariko kontserbazio lanak

Ondare artistikoa zaharberritzeaz, kontserbatzeaz eta aztertzeaz arduratzen den Petra sozietate kooperatiboa Debako Santa Maria eliz atariko kontserbazio lanak egiten ari da urriaren 19az geroztik. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare historiko-artistikoa kontserbatzeko planaren barruan kokatzen da proiektua, eta, aldundiko iturriek jakitera eman dutenez, bi hilabete iraungo dute lanek. “Aurreikuspenen arabera, abenduaren bigarren astean amaituko ditugu”.

Esku hartzearen aurrekontua 53.500 eurokoa da, eta 1995an gauzatutako zaharberritze integralaren “jarraipen” moduko bat dela esan dute aldundiko arduradunek. “Eliz atari gotiko polikromatu honen balio handia kontuan hartuta, eta atariaren osotasuna bermatzeko asmoarekin, azken urteotan hainbat kontserbazio jarduketa egin ditu aldundiak. 2019an, eliz ataria ikuskatu, berrikusi eta hautsa kentzeko txostena eskatu zion aldundiak Petra enpresari, eta txosten horren ondorio da ikusitako kontserbazio arazoak konpontzeko egun egiten ari diren esku hartzea”.

Nekane Sanz Gomez de Segura lanen arduradunak azaldu duenez, polikromia finkatzea eta morteroen egitura sendotzea da, batez ere, lanen helburua. “2021ean mantenu lanak egin genituenean polikromiaren aglutinatzailea ez zegoela konturatu ginen. Polikromiaren



pigmentua ere hauts bihurtuta zegoela ohartu ginen. Hori dela eta, mantenu lanak egitea beharrezkoa zela ikusi genuen. Zaharberritze lanak egin zirenean, bestalde, ez zen morterorik ipini. Tarte horietan hautsa eta zikina sartzen zen, eta guztia babesteko elementu garrantzitsua da”.

Lanak ikusgai

Lanen arduradunak zehaztu duenez, hondarrez eta karez egindako mortero tradizionalak ari dira ipintzen. “XV. mendean garai hartako artisauek egiten zuten

erara ari gara morteroak jartzen; hau da, erretxinik edota gauza sintetikorik gabe”.

Bospasei pertsonako lantalde profesionala ari da zeregin horretan eta, Sanzen esanetan, “martxa onean” doaz lanak. “Hiru mailatan banaturik dagoen aldamio bat ipini dugu eroso lan egiteko. Goiko mailako lanekin amaitu ondoren, erdiko mailan ari gara orain lanean”. Nahi dutenek, gainera, lanak bisitatzeko aukera izango dutela gaineratu du. “Interesatuta dauden guztiak aldamiora igotzera gonbidatuta daude. Beharrezko azalpen guztiak emango dizkiegu”.



Ezkerrean, Petra enpresako kide bat lanean. Eskuineko irudian, lanen aurkezpean parte hartu zuten ordezkariak: Isabel Cubillas (Petra), Aritz Larrañaga (Debako Udala), Mari Jose Telleria (Foru Aldundia), Nekane Sanz (Petra) eta Patxi Aizpitarte apaiza.



Euskaraldiarekin batera abiatu da Euskeraz Bagera zikloa

Hitzek ekiteko garaia da. Azaroaren 18an hasi zen hirugarren Euskaraldia, eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialarekin batera abiatu zen herrian Euskeraz Bagera programazioa bera, Zuhatza Euskara Elkarte, Debako Udala, Euskaraldia eta beste hainbat eragileren ekimenez.

Hitzordua goizean goiz jarrita zegoen hilaren 18an, Euskaraldiari irrintziz emateko hasiera gurean. 06:45ean entzun ziren lehen irrintziak, eta goizean goizetik ikus zitezkeen jendea kalean *ahobizi* eta *belarriprest* txapa jarrita. Norbanakoek soinean ez ezik, *arigunee* ere ikusgai jarri zituzten identifikagarri laranja euren lantoki edo egoitzetan.

Euskaraldiko kideek nabarmendu dutenez, aurten 700dik gora lagunak eman dute izena egitasmoan Deban eta Itziarren. Halaber, guztira 63 *arigune* sortu dira.

Azaroaren 18an goizeko irrintzi katearekin abiatu zen egitarauak iluntzean izan zuen jarraipena Deban, Labatai tabernatik hasita, trikitilariekin egindako kalejirarekin. Hurrengo egunean, Kanean Kantuz-en emanaldia izan zen eguerdian. Eta, hilaren 20an, berriz, Euskaraldiaren dantza ikastaroa

(Gure Kai EDT-ren eskutik), mural margoketa eta Gune Ibiltaria izan ziren estalitako pasealekuan.

Abenduaren 2ra arte izango da Euskaraldia. 15 eguneko iraupena izango du, hortaz, ariketak. Nolanahi ere, euskara ardatz hartuta herrian antolatutako jarduerak abenduaren 10era arte luzatuko dira. Hori hala, Euskeraz Bagera zikloak Euskararen Nazioarteko Egunaekin (abenduaren 3an) eta Zuhatza Euskara Elkarte sortu zeneko 25. urtemugaren ospakizunarekin bat egingo du abenduan.

Askotariko jarduerak izango dira aukeran -hemen behean dago ikusgai programazioa-. Antolatzaileek ohartarazi bezala, hitzordu gehienak doakoak izango dira eta ez da beharrezkoa izango izena aldeztatik ematea, baina badira salbuespen batzuk; azaroaren 26ko yoga ikastarorako edota abenduaren 1eko Mintzodromorako izena aurrez ematea eskatu baitute antolatzaileek.

Bestalde, Benito Lertxundiren emanaldirako sarrera guztiak agortuta daude (660 laguntzeko edukiera izango du saioak), baita Skabidean taldearen kontzertua ikusteko sarrerak ere.

Euskeraz Bagera egitaraua

Azaroak 26, larunbata

-10:00. **Yoga ikastaroa** (Maialen Solabarrieta) Agirre jauregian.
-19:00. **Antzerkia: Bilakatu** (Goaz Antzerki Taldea) Ispiluen gelan. Sarreraren salmenta: bertan, 3 euroan.

Abenduak 1, osteguna

-18:00. **Mintzodromoa** (eta luntxa) Ispiluen gelan.

Abenduak 2, ostirala

-10:30. **Literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia** Mendata institutuan.
-17:00. **Euskaraz blai truke jolasa** udaletxeko arkupeetan.
-22:00. **Kontzertua: Benito Lertxundi** kiroldegian.

Abenduak 3, larunbata. Euskararen Nazioarteko Eguna

-11:30. **Umeentzako mahai-jokoak** udaletxeko arkupeetan.
-13:30. **Euskaraldiaren dantza eta, ondoren, argazki herrikoia** Foruen plazan.

Abenduak 9, ostirala

-22:30. **Herriko musikarien kontzertu akustikoa: Euskeraz bagera!** Kultur Elkartearen (doan).

Abenduak 10, larunbata

-11:00. **Skabidean 10 urte dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia taldekideekin** Kultur Elkartearen.
-20:00. **Kontzertua: Skabidean** Gaztetxean.

Benito Lertxundi musikaria



“Auskalo nire kantuak zer izango ote ziren euskaraz izan ez balira, izango zirenik ere ez dakit”

Orioko Bardoak kantaldi berezia eskainiko du Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan. 22:00etan hasita, Debako kiroldegian izango den hitzordua aurtengo Euskeraz Bagera zikloaren, Euskaraldiaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen sortu zeneko 25. urteurrenaren baitan antolatu dute; sarrera guztiak agortuta daude. Kontzertu hori aitzakia hartuta, *Berriketan* aldizkariako kazetariekin elkartu da oriotarra. Kantaldiari buruzko hainbat xehetasun eman ditu, eta beste hainbat gai ere izan ditu ahotan: euskarak bere ibilbidean izan duen garrantzia, aurrera begirako asmoak...

Lehenago ere abestu izan duzu Deban. Zer nolako harremana duzu herriarekin?

Egia esan, nire memorian oso urrun gogoratzen dut Deban kantatu nueneko azken aldia. Txarto ez baldin badut gogoratzen, behin edo bitan bakarrik abestu dut bertan.

Gustura jarduten duzu Debakoa moduko herri txikietan, ala nahiago duzu hiri edo herri handietan aritu?

Niretzat emanaldi guztiak dira garrantzitsuak; grin guztia jartzen dut kontzertu bakoitzean. Egia esan, eskaintzen ditudan kontzertuak ez ditut bata bestearengandik nabarmentzen. Gero askotan gertatzen da halako edo bestelako emanaldia zerbaitengatik berezia izatea, baina iruditzen zait tokiak ez duela aurrez zerikusirik horrekin guztiarekin.

Ospakizun handi baten bueltan etorriko zara, gainera. Zuhatza Euskara

Elkartearen 25. urteurrena, Euskaraldiaren amaiera, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezpera... Halako ekintzak euskara indarberritzeko baliagarriak direla uste duzu?

Ez dut behin ere sinetsi urtean behin egiten diren ekimenekin euskara salbatuko denik. Hizkuntza guztien soluzioa politikoa dela iruditzen zait, eta inoiz ez folklorikoa. Beraz, eta galdera euskaraz bizi den bati egiten diozunez, esan behar dut euskara nire zerbitzura ekarri dudala, eta ez alderantziz. Auskalo nire

kantuak zer izango ote ziren euskaraz izan ez balira, izango zirenik ere ez dakit.

Zure abestietako asko ere erreferente bihurtu dira. Zer sentitzen duzu zure kantek euskara ikasten laguntzen dutela jakitean? Eta nola hartzen duzu ardura hori?

Oso pozgarria egiten zait. Horrek guztiak hunkitzen nau, eta, gainera, fereka moduan hartzen dut.

Azkar esaten baldin bada ere, mende erdi baino gehiago daramazu oholtzaz oholtza. Zuzenekoek zer ematen dizute? Oraindik ere lehen kontzertuak besteko zirrara eragiten dizute?

Beti pentsatu izan dut kantagintza-ren egia zuzenekoa dela, nahiz eta gero modu asko dauden musikarekin bizitzeko, eta horretaz guztiaz sortu daitezkeen hunkidurak eta abar. Baina nolabait egia esateko, kantu bat abestu eta entzuleak

“Kantagintza ia hirurogei urte baldin badaramatzat, hori neurri batean belaunaldi berriak etorri direlako da”

bizi-bizirik hartzen duen gertaera bakarra zuzenekoan ematen dela uste dut.

Zer eskatzen diozu zeure buruari kontzertu bat ontzat emateko?

Neu konforme geratzea.

Abenduaren zan zer erreperitorio entzuteko aukera izango du publikoak?

Azkenaldi honetan gusturen eskaintzen dudana entzungo du.

Zure kanta enblematikoez gain, oraindik grabatu gabe dagoen piezara bat entzuteko aukera egongo da?

Bai, halaxe da.

Kontzertuetan gehien gozaten duzun abesti bat aukeratu beharko bazenu, zein izango litzateke?

Gaur egungo kontzertuetan azken-

azkena kantatzen dudana abesti berri bat nabarmenduko nuke.

Musika estilo eta talde berrien gora-kadarekin, nola egiten du zu moduko kantari batek nabarmentzeko? Zein da zure arrakastaren gakoa?

Naizenari jarraitzen diot eta jarraitpen horretan bakoitzak bere sena jartzen du. Kantuan hasi nintzenerako munduan kantari eta kantu asko zegoen, eta nik nire nahiari, izaerari eta nire senari jarraitu izan diot beti. Horren ondorio dira nire kantuak ere.

Deigarria egiten zaizu kontzertuetan belaunaldi askotako jendea ikustea?

Bai. Lehenaldiz aspaldi Donibane Garazin eskaini nuen kontzertu batean konturatu nintzen hiru belaunaldi zudelana nire aurrean. Kantagintzan ia hiru-

rogei urte baldin badaramatzat, hori neurri batean belaunaldi berriak etorri direlako da; bestela, lanbide hau aspaldi utzita izango nintzen.

Kontzertuetan, gainera, aretoak betetzen jarraitzen duzu. Horrek zer nolako sentimenduak eragiten dizkizu?

Zorte handikoa sentitzen naiz, benetan, egiten dudanak ere zerikusia izango duela uste dut.

Beti sortzen ari den musikari bat zara. Zure musika ibilbide oparoan 18 disko argitaratu dituzu. Musikalki zer momentutan zaude orain? Beste proiekturen bat ba al duzu esku artean?


Bizpahiru kantu berri badauzkat eginak, eta ez diot ezzerri atea ixten. Kantu horietako batean diodan bezala, unez une bizi naiz.

Benito Lertxundirekin batera arituko diren musikariak:

Imanol Iribarren (*pianoa eta sintetizadoreak*), Ander Zulaika (*bateria*), Amaiur Cajaraville (*baxua eta kontrabaxua*), Gurutz Bikuña (*gitarra*), Angel Unzu (*gitarra, bouzukia eta perkusioa*), Xabier Zeberio (*arrabita eta nyckelharpa*), Pello Ramirez (*txeloa eta eskusoinua*), Intza Unanue (*ahotsa*) eta Olatz Zugasti (*ahotsa, harpa eta teklatura*).

Kontzerturako oharra:

660 lagunentzako edukiera izango du kiroldegiko emanaldiak. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta 90 minutuko iraupena izango du. **Ateak 21:30ean** irekiko dira. Eserlekuak (plastikozko aulkiak) ez daude aurrez esleituta eta, hortaz, gunera garaiz iristea gomentatzen da (sarrera iritsieraren hurrenkeran izango da). **Berogailu sistema** jarriko da. Gunearen segurtasuna bermatzeko lanean jardungo duten boluntarioek peto laranja eramanango dituzte soinean, eta haien jarraibideak errespetatzeko eskatu dute.



Atsedernaldi baten ostean oholtzetara bueltatu da Brigade Loco taldea

Abuztuan Gasteizko txosnagunean emandako kontzertutik agertokirik zapaldu gabe egon ondoren, Etxarriko Gaztetxean azaroaren 19an emandako "ezusteko" kontzertuarekin itzuli da Brigade Loco musika taldea oholtzetara. Azaroaren 25ean emango dute hurrengo emanaldia, Italiako Bull Brigade eta Abadiñoko State Alerta taldeekin batera ariko dira Oñatiko Gaztelekuan.

Beste hainbat zuzenkeren datak ere iragarri ditu taldeak. Abenduaren 17an, esaterako, Atarrabian egingo den Hatortxu Rock jaialdian parte hartuko dute Soziedad Alkoholika, Skakeitan, Odolkiak Ordainetan, Bulego, Nogen edota Odei taldeekin batera. Urtarrilaren 14an, Santiago de Compostelan joko dute Rude Pride eta Keltoi! taldeekin batera. Otsailaren 17an, Bilboko Kafe Antzokiko eszenatokira igoko dira, Arene 6 taldearekin batera. Ekainean egingo den Gasteizko Azkena Rock jaialdian ere arituko dutela jakinarazi dute. Mundu mailan sekulako ospea duten hainbat talderekin partekatuko dute oholtza: besteak beste, Iggy Pop, Rancid eta Lucinda Williamsekin.

Taldeko kideek, gainera, beste albiste bat ere eman dute. Perugiako (Italia) Azione Diretta taldearekin batera *Borghetti Crew* izeneko disko elkarbanatua aurkeztuko dute abenduan.



Beste bi sari eskuratu ditu Aitor Oñederraren *Ur azpian lore* filmak



Aitor Oñederrak zuzendutako, ekoiztutako eta idatzitako animazio film laburrak sariak eta izendapenak pilatzen jarraitzen du. Espainia mailako jaialdien zirkuituko beste bi sari jaso ditu *Ur azpian lore* lanak. Urriaren 20tik 29ra egindako Arnedoko (Errioxa) 24. Octubre Corto jaialdi entzutetsuan lortu zuen sarietako bat. Debarraren zinta fikziozko sailean nabarmendu zen, eta, sail ofizialeko Ofimar Saria eskuratu, jaialdiko animaziozko film onena izendatu zuten.

Jaialdiko epaimahaiak lanak bere gain hartzen duen "errorra formala" nabarmendu zuen saria ematean. "Pertsonaien mundu intimoa adierazteko sinbolismoz beteriko hizkuntza esplizitua erabilia heldu dio lanak fokutik kanpo izan ohi den emakume migratzaileen abortua moduko gatazkari". Oñederrak "esker onez" jaso zuen 500 euroko saria eta Aborigen garaikurra.


Zintak, gainera, urriaren 25etik 30era gauzatu zen Granadako 28. Zuzendari Gazteen Jaialdian banatu diren zortzi sarietako bat ere irabazi zuen. Zehazki, Epaimahai Gaztearen Saria eman zioten urriaren 30ean.

Lanak, guztira, bost sari lortu ditu orain arte. "Oso pozik gaude lortutako sariarekin. Bospasei urteko sortze lana izan da, eta orain arteko lanari egindako errekonozimendua dira sari hauek. Animazio lan bat egiteak zulo antzeko batean sartuta egotea eskatzen du. Zulo horretatik atera, eta jendeak zure lanarekin bat egitea eta lan horrekin adierazi nahi izan dudana guztia ulertzea eman dudala ikustea oso pozgarria da".

Goya sarietarako bidean


Lanak, gainera, bestelako jautzia eman du. Espainiako Zine Akademiak 37. Goya sarietan lehiatzeko aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda publiko egin zuen, eta zinta film laburren batzordeak aukeratu dituen 35 lanen artean dago. Zehazki, lehen hautaketa horretan animaziozko kategorian lehiatzeko hautatu zituzten hamar film laburren artean dago.


Zine akademiako kideek lanik gutukoena hautatzeko bozka emateko aukera izango dute asteotan, eta emaitzak jaso ostean emango dituzte 2023ko Goya Sarietarako finalisten izenak. Hautagaitza lortzeko "itxaropentsu eta pozik" dagoela esan du Oñederrak.



LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba





www.taxideba.eu

636 135 008

alain@taxideba.eu



Seven Clovers

Irish pub

943 191 295




57. DURANGOKO AZOKA
 2022ko abenduaren 7tik 11ra
www.durangokoazoka.eus



EZTANDA!



EZTANDA!



Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda

Durangoko Azokak "eztanDA!" egingo du abenduaren 7tik 11ra

Azken bi urteotako murrizketak alde batera lagata, ohiko formatua berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra egingo da, *Eztan-DA!* lelopean, eta, aurrez aurreko salmentaz gain, online dendari ere eutsiko dio.

Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak azaldu duenez, 57. Durangoko Azokan euskal kulturaren "eztanda" biziko da: "Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda izango da; Durango osotik eta Euskal Herri osorako zabalduko den eztanda. Bost egunez iraungo duen eztanda".

Idea horri tiraka sortu du, hain justu, Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokarako kartela. "Ilustrazioak unibertsuaren eta Big Bangaren hedapenera eramaten gaitu. Inklusibitatearen baitan, pertsona ezberdinen (ez emakume, ez gizon) ideiak, ilusioak eta norberaren imajinario koloreduna irudikatu dut. Kulturak berak, bai literaturak, bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla".

Kartela ez ezik, DA! irudi korporatiboarekin batera zabalduko den ikono berri bat ere sortu du egileak aurtengo ediziorako: "Izar moduko ikono bat da, eztanda irudikatzen duena".

Ohiko guneak

Ikasle Goizarekin emango diote hasiera egitarauari hilaren 7an. Bertaratuko diren milaka ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango dute –komikiak sortzeko tailerlean edo *PortaDA!* erronkan, esaterako–. Eta, lehen aldiz, hezitzaileek tailerrak jasoko di-



Kulturazaleak iazko azokan.

tuzte –hezkuntzarako baliabide digital libreei buruzko saioan eta euskal kulturaren transmisioaren gaineko solasaldian–.

Horrez gain, bost eguneko kultura programazioa izango da bertaratzen direnentzat, hainbat gunetan banatuta: Irudienea, Saguganbara, Ahotsenea, Kabi@, Talaia eta Szenatokia. Askotarik hitzorduak egongo dira bertan aukeran, beste behin ere.

Ahotseneako eszenatokian, adibidez, 47 talde arituko dira eta, azken urteetan bezalaxe, zuzeneko emanaldiak Plateruenan izango dira. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik izena ematea. "Ahotsenea sortzaileen topalekuak 15 urte beteko ditu aurten eta ospakizun berezi honetarako

bost eguneko musika-maratoia antolatu dugu", nabarmendu dute guneko arduradunek.

Online denda

Landako guneko aurrez aurreko erakusmahaiak gain, aurten ere erosketak etxetik egiteko aukera egongo da abenduaren 7tik 10era. Denda digitalean –*durangokoazoka.eus* atarian– azokako nobedade guztiak egongo dira eskuragarri. Eta behin azoka amaituta, abenduaren 11tik aurrera, *Zu non, han Da!* egitasmoaren bitartez, Euskal Herriko hamaika dendatan Durangon aurkeztuko diren nobedadeak erosteko aukera egongo da, hirugarren urtez. Horrez gain, liburu aurkezpenak ere antolatuko dira hainbat saltokitan.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Azala: Ruben Ramos

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18.710 ale

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

"Kulturari ekarpenik handiena sortzaile eta kulturazaleek egiten diote"

BEÑAT GAZTELURRUTIA GEREDIAGA ELKARTEKO KIDEA

Normaltasun egoera berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak, eta horren nondik norakoak azaldu ditu Gerediaga Elkarteko Beñat Gaztelurrutiak.

Bi urteren ondoren, betiko formatua berreskuratuko du azokak. Pozik?

Bai, jakina. Azokarentzat urte zailak izan dira, gizarte osoarentzat izan diren moduan. Sasoi nahasiotan guztiok daukagu gauzak bere onera etorriko diren ametsa. Baina, susmoa dut, aurrerantzean dena izango dela gero eta desberdinagoa.

Zer eskainiko du aurten azokak?

Azoka barruko espazioaren antolamenduan aldaketa batzuekin ditugu, liburuak eta musika bereiztuta. Apalategi bat ere montatuko dugu, euskarazko liburu berriak eskuartean hartu eta kontsultatzeko. Diskoen kasuan, QR kode bidez disko bakoitzeko kanta bat entzuteko aukera egongo da. Gauza gehiago ere bai, 250 aurkezpenetik gora gune eta hainbat diziplinatan eta abar. Onera bertara etorri eta norberak ikustea da.

Zein da Durangoko Azokak euskal kulturari egiten dion ekarpena?

Kulturari ekarpenik handiena sortzaileek eta kulturazaleek egiten diote. Azokaren lana da harreman hori indartzea, batzuei bere lana erakusteko plaza emanez eta besteei bila aritzeko bidea erakutsiz. Azokak egiten duen lan hori berori egiten dute urtean zehar hainbat eragilek. Dena den, ez naiz oso oker ibiliko esaten badut euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa dela Azoka, eta hori ekarpen handia da, euskal kultura existitzen den froga garbia delako eta euskal kultura badela defendatzen dugunok indarrez betetzen gaituelako.

Pandemiak kulturagintza jipoitu zuen. Bi urteko etenaldi horri eman al zaio buelta?

Ez nuke esango euskal kulturaren arazorik handiena pandemiaren jipoia denik. Benetako arazoa da ez garela nahikoa kulturazale kultur-ekosistema osasuntsu bat mantentzeko. Horri ez badiogu heletzen bere ertz gutxietatik, jai daukagu.



Beñat Gaztelurrutia. ANBOTO

Datuen arabera, papera izugarri garestitu da, liburuak ez dira irakurtzen, diskoak ez dira saltzen... badirudi gauza asko kontra dituela Durangoko azokak. Zein espektatiba duzue aurtengorako?

Ertz asko ikutu dituzu galdera bakarrean. Paperaren garestitzea bizitzaren garestitzearekin lotu behar da, eta erosahalmena jaisten denean badakigu kultura izaten dela kaltetuenetako bat. Diskoak ez saltzea digitalizaioarekin ere lotu behar da. Digitalizazioak gauza onak ekarri ditu, musikagintza "demokratizatu" egin du, autoekozipena sustatu du, bide berriak zabaldu ditu. Baina, aldi berean, euskarri fisikoa desgertzeko bidean jarri du eta, horrekin batera, sortzailearentzako diru-sarrerak. Bistan da arazoak asko direla eta Azokak berak bakarrik ez diela irtenbiderik emango guztiari. Uste dut asko hausnartu eta pausoak adostu behar direla eragileen artean, eta horrek eskatzen du hausnarketa zintzoak egitea eta eskuzabaltasunez jokatzeko.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizunari baikortasunez begiratu behar zaio beti. Ez gaitezen autobetetakoprofezia baten jausi. Euskal kulturak egiturazko arazoak ditu, baina lanean gogoz ari den balio handiko jende pila bat ere bai. Nik neuk horri heltzen diot. Aurtengo Azoka behintzat ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan daitezen lanean jarraituko dugu.


"Euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa da azoka"

"Aurtengo azoka ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan ditezene lanean jarraituko dugu"

Debabarreneko uzta


DEBA - ITZIAR

LITERATURA




**ERIKA LAGOMA POMBAR
ETA ESTITXU FERNANDEZ
MARITXALAR 'M ama* eme*
ume*'**

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana, 2022.




**JON ABRIL OLAETXEA
'Isildutako eskuak. Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian'**

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana, 2022.




NEREA LOIOLA 'Naiain'

Erein, 2022.
Aurkezpena: abenduak 10,
larunbata, 17:00. Saguganbaran.



NEREA LOIOLA '7G udalekuak'

Erein, 2022.
Aurkezpena: abenduak 10,
larunbata, 13:30. Ahotsenean.




NEREA LOIOLA 'Epicentro'

Gaztelerez. Erein, 2022.

**TENE MUJIKA
UDAZKENEKO ARGITAN**

Cira Crespo



**CIRA CRESPO 'Tene Mujika.
Udazkeneko argitan'**

Debako Udala. Durangon
Elkar-ek salduko du bere
postuan.

MUSIKA



NEOMAK TALDEA 'Neomak'

Airaka, 2022.
Aurkezpena: abenduak 8,
osteguna, 15:40. Ahotsenean.

EIBAR


MUSIKA



MICE 'Lautada'

Forbidden Colours, 2022.

**Kokein
Atomika₅**




KOKEIN 'Atomika'

Autoekoitzia, 2022.



**MARKOS UNTZETA
'Ekilibrista'**

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



SUTAGAR 'Alarma'

Autoekoitzia, 2022.




LORELEI 'Ekografiak'

Elkar, 2022.

ELGOIBAR - MENDARO

LITERATURA




UXUE ALBERDI 'La belle'

Elkar argitaletxea.



DANELE SARRIUGARTE
‘Assata shakur autobiografia bat’


Itzulpena. Katakarak.



DANELE SARRIUGARTE
‘Hamahiru ipuin’

Luisa Carnesen ipuinen itzulpena. Erein.


MUSIKA



JON GURRUTXAGA ‘Belar Hostoak I&II’

Elkar. Txomin Artolak, Walt Whitmanen testuekin, 1978an argitaratu zuen Belar Hostoak diskoaren moldaketa berria kaleratu du Elkar argitaletxeak lan bikoitz honetan. Artolak Mixel Ducau, Jean Phocas, Beñat Amorena eta Robert Suhas izan zituen bidelagun 78an. Lan hari keinua Jon Gurrutxagak, Urbil Artolak, Dani Venegasek, Antxon

Sarasuak eta Andoni Etxebestek egin diote oraingoan.




MARACA DIABLO ‘Maraca diablo’

Screaminguy records.




MUSIKA



SAIA GOAIT ‘Miazkatu’

Autoekoitzia, 2022. Musika Zuzenean erakusmahaiari egingo dira diska saltzen.



DELIRIUM TREMENS. ‘Hordago’

Mauka musikagintza, 2022. Aurkezpena: abenduak 7, asteazkena, 21:30. Ahotsenean.




MUSIKA

PAUL SAN MARTIN ‘Single’
Gaztelupeko Hotsak, 2022.




MORAU ETA BEÑARDO ‘Ardo’

Disko liburua. Gaztelupeko Hotsak, 2022.




MAINLANDER ‘Mainlander’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



XAHU ‘Gero gerokoak’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



ORGANIZING ‘Short Stories’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.




KIKE ARZA ELECTRIC QUARTET ‘Biharko Mendekaitz’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



RS FAKTOR (RUBEN SALVADOR) ‘Equanimity’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.




JON PIRIS & IÑAR SASTRE ‘Pasieran’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



THE NEW JAZZ COLLECTIVE ‘Lucio Urtubia’

Gaztelupeko Hotsak, 2022.



HUTSUN + JEL TRIO Artze

Gaztelupeko Hotsak, 2022.

SYMBIOSIS 5 Jazz Getxo

Gaztelupeko Hotsak, 2022.

"15 bat disko argitaratzen ditugu urtean, seguru aski, Euskal Herrian gehien"

UBANE UZIN GAZTELUPEKO HOTSAK DISKOETXEKO KUDEATZAILEA

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak disko ugari izango ditu Durangoko Azokan salgai, euren banatzaile den Elkar argitaletxearen stand-ean; jazz asko, blues diskoak, disko-liburu tematikoa... musika mota asko eta artista askoren lanak ondu dituzte azokarako.



Ubane Uzin eramango dituzten produktueta batzuekin. FERNAN OREGI

Zelako uzta eramango duzue Durangora?

Askotarikoa. Andoni Tolosa *Morauk* eta Beñardok ateratako ardoari buruzko disko-liburutik hasi, Markos Untzeta eibartarraren diskotik segi, blues diskoak, jazz asko... Bestalde, Txuma Murugarrenena ere badugu, baina atzeratu egin da.

Artista asko egotea kasualitatea da?

Gaur egun, musikak dituen aldaketekin, dibertsifikatu egin beharra dago; guk horrela egin dugu eta momentuz, ondo funtzionatzen digu.

Zergatik dibertsifikatu beharra?

Musika euskarri fisikoan geroago eta gutxiago saltzen da. Lehen ateratzen zenuen produktu gutxi eta horietatik asko saltzen zen; orain, berriz, produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da.

Diskoek ezaugarriak ere aldatu dira? Motzagoak dira...

Ez, lehengo modukoak. Azken batean, diskoak zuzenekoan defendatu behar dira eta zuzenekoak ordubete pasako kontzertuak izaten dira.

Aipatu dituzun izenen artean badaude aspaldiko klasikoak, 'Morau', adibidez...

Bai, Andoni Tolosa etxekoa da, aspaldi ezagutzen dugu. Gainera, oso emanaldi kuriozosa egin du, ardoaren inguruko tematikoa, Biba Ardoak-ekin elkarlanean... Soraluzen izango da emanaldia abenduko lehen asteburuan; beste hainbat lekutan ardo kata eta guzti egiten du. Adibidez, Chillida Lekun, Biba Ardoak-ek ardo ipini zuen eta Chillida Lekuk pintxoak, musika entzutera joatea baino gehiago izan zen, esperientzia oso bat.

Aurten, baina, ez zarete egongo Durangoko Azokan Gaztelupeko Hotsak moduan...

Fisikoki ez. Gaur egun, musika enpresa guztiak orokorrean txikiak dira; guk

bestelako lan karga handia dugu Gabonen buelta honetan eta ezin gara biderkatu. Elkar da gure banatzailea eta han egongo dira gure produktuak.

Bestalde, gauza asko eramango dituzue, baina beste asko ezin dituzue eraman, ezta?

Horrela da. Durangoko Azokara, hemen go musikiari izateaz gainera, euskarazko produkzioa eraman behar da. Guk, berriz, produkzio asko dugu ingelesez, bluesa, batik bat, eta horrek han ez dauka lekurik.

Liburugintza ere lantzen duzue; hortik eramango duzue zerbait?

Ez. 2022ko erabakietako bat izan da libururik ez publikatzea. Guk bi urte daramatzaguz digitalizatze prozesuan eta ez dugu gaitasunik denean egoteko. Musika salmenta bera digitalera doa.

Buruhauste handia da?

Hori baino, beste lan batzuk egitea eskatzen duela. Gainera guri musika fisikoa eta zuzenekoak gustatzen zaigu, oso arrotza egiten zaigu bestea.

Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian gehien produzitzen duen diskoetxea da Gaztelupeko Hotsak?

Bai, seguru aski bai. Urtean erreferentzia asko ateratzen ditugu, gutxiago saltzean disko gehiago atera behar ditugulako urtean salmenta iturriak antzerakoak izateko. Urtebetean, 15 bat disko (erreferentzia) argitaratzen ditugu.

Hala ere, zuen helburu nagusia ez da izan inoiz salmenta handiak lortzea edo udako kantak sortzea...

Bueno, hortik bizi gara, baina beti izan gara ibilbide luzeko produktuak ateratzekoak. Gu gara Serie B. Eta ohore handiarekin, gainera.

Zenbat erreferentzia ditu Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak?

450etik gora, 90eko hamarkadatik hona.

Eta zeuen lekuari eusten segitzen duzue.

Bai, geroago eta gehiago gaude espezializatuta musika beltzean eta oso-oso gertuko diren euskal artistekin. Egia esan, beti esaten dugu ez garela sartu behar gauza berrietan, baina batzuetan etortzen zaizkigu gauza berriak, bigundu egiten gara eta aurrera egiten dugu.

Artista berriendako, baina, bazarete erreferentzia...

Bai, baina geroago eta zailagoa da artista berri batekin aurrera egitea. Nik uste dut musikagintzan, disko eta kantu on bat egin ahal dela, baina gero hori taula gainean defendatu egin behar da eta gaur egun benetan zaila da. Antzokietakoek nahi dute antzokiak beteko dituzten artistak. Eta halako gutxi daude. Lehen, musika taldeek bira egiten zutenean, Soraluzeko Gaztetxea bira horren barruan zegoen, kontzertu areto modura. Edo txosnaguneak ziren sasoi batean artista berriendako aukerak. Orain, berriz, txosnaguneetara ere talde handiak joaten dira. Hasiberri batendako oso zaila da. Eta egon badaude. Begira Debagoienean egiten ari diren Danbakan zenbat talde dauden. Baina, leku ofizialtan taldeek bete behar dituzten baldintzak oso nekezak dira: Gizarte Segurantzza, nominak... ordaindu behar dituzte, ondorioz, amateurismoa asko moztu da. Amateurrek ere profesionalen pareko baldintzak bete behar dituzte eta hori musikagile edo musika talde berri batendako benetan zaila da.

Durangoko Azokara bueltatuz, ematen dio bultzada musikagintzari?

Nik uste dut beti ematen duela zerbait. Eta gainera, epe bat jartzen du, eta produktu berriak Durangoko Azokari begira egiten dira. Gauzak asko aldatu dira, baina Durangoko Azoka bera ere asko aldatzen ari dira.

"Garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako"

ASIER SERRANO LORELEI

Lorelei musika taldeak 'Ekografiak' (Elkar, 2022) izeneko diskoa kaleratu du taldearen sorreraren 25. urteurrenean.



Antxon Sarasua, Mikel Gorosabel, Asier Serrano eta Loiola Madera.

Zerk bultzatu zaituzte bi hamarkadaren ondoren disko berria kaleratzera?

Orain dela hiru urte kontzertu batzuk emateko elkartu ginen, ilusioarekin eta, batez ere, herdoila kentzeko. Hamar kontzertu izan behar ziren, baina pandemiaren ondorioz hiru eman genituen. Oso harrera ona izan genuen. Gero, baikoitzak bere odisea edo miseria pertsonalak pasa zituen. Niri, adibidez, lepoko ebakuntza larria egin zidaten. Ondo atera zen, baina min neuropatikoa eratu zitzaidan besoa eta ez negoen ezertarako. Orain animoz hobeto nago, baina joan den urtea gogorra izan zen. Orduan, Nortonek, animatzeko edo, diskoa grabatzea proposatu zidan.

Eta baiezkoa eman zenion?

Nahiz eta sormenerako panggal egon, Nortonek lehenengo abestiaren doinua pasa zidanean, nagitasunez, baina heldu egin nion. Barealdia sentitu nuen, gertatzen ari zitzaidanaz berba egiten nuelako. Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu

oso intimotik. Modu terapeutikoan edo, beste kantuak konposatzen hasi nintzen Nortonekin eta disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen. Ez azkena, baina bai herentzia moduan lagatzeko diskoa. Loreleik eman didana eta niretzat duen esanahia islatu nahi izan dut bertan.

Nolakoa izan da grabaketa?

lazko abenduan eta urtarrilean grabatu genuen diskoa, eta orain arte sekretuan eduki dugu. Ia urtebete egon da izozkailuan, minak noiz baretuko eta noiz indarberri-tuko zain, irailean argitaratu arte. Prozesu lasaia izan da. Sasoi hauetan diskoek beste toki bat hartu dute eta Elkar argitaletxeak esaten ziguten zaharrak garelako eta presarik ez dugula. Beraz, lasai hartu dugu, beste arlo batzuetan indarra jarri (diskoaren azalean, adibidez) eta artefaktuaz gehiago gozatu dugu.

Aita izan zara berriki. Horrekin zerikusia du 'Ekografiak' izenburuak?

Horrekin lotuta dago, baina era berean ez. Azken urteetan proba mordoa egin

dizkidate eta ekografie saso batetako tarot irakurleen zentzua hartu diet. Ekografie oihuak jaurtitzen dituzte eta horren erantzuna jasotzen dute. Kontzeptu horretan sakondu nahi izan dugu. Izan ere, adin honetan gure gorputzen mugimenduak neurtzen ditu eta, besetik, iraganean botatuko oihuak gaur egun nola jasotzen ditugun adierazten ditu. Orain garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako.

Letretara joz, zertaz jardun duzu?

Ikuspuntu pertsonalak azaltzen dira azalean eta letretan, baina nahiago dugu entzuleek berera egokitzea. Azken neurrian, ni guztiak dira ezberdin, berdinak direlako. Abestiek galderei buruz eta Eibarko haurtzaroz berba egiten dute, besteak beste. Batez ere, nola ihes egin dezakegun zuri-beltzetik koloreetara. Hau da, guk aukeratu dezakegula ekografia margotzea.

Iraganean oihartzun indartsua laga zuen Loreleik, hainbeste urtetan isilik egon ondoren publikoak beso zabalik hartu zaituztelako. Nola bizi duzue hori?

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertuak berriz ematea. Andoainen izan zen lehen kontzertua eta ez negoen urduri, shock egoeran baizik. Ez gatoz gazteei lekua kentzera, hori ez da gure helburua, ezta belaunaldi berriak konstatzera ere, baina ikustea gure belaunaldiko jende hori kontzertuetara etorri zela, ez dakit gaztetzera edo nostalgia musukatzerara edo, izugarria izan zen.

Zuen musika ondo zahartu den seina-le?

Orain dela 25 urte, guk ez dakit, baina Gaztelupeko Hotsakek asko arriskatu zuen. 90. hamarkadan ez zen ohikoa eta zailtasunak zeuden gure eskaintza jasotzeko. Hau da, poesia eta pop-rock musika eskaintzea, heavy eta punk eszena zegoenean. Sasoi horretan diskoen salmentek agintzen zuten eta, gure harri-durarako, gureak funtzionatu zuen.

"Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik"

"Ez azkena, baina disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen"

Ahotseneako egitaraua

Asteazkena 07

OLAIA INZIARTE 14:30-15:00



MARACA DIABLO 15:40-16:10

ZAKILL 16:50-17:20

SUA 18:00-18:30

BOLBORA 19:10-19:40

GOXUA N'SALSA 20:20-20:50



DELIRIUM TREMENS 21:30-22:00

Osteguna 08

BILAKA 11:00-11:30

PIZTIAK 12:10-12:40

INES OSINAGA 13:20-13:50

RODEO 14:30-15:00



NEOMAK 15:40-16:10

HIBAI 16:50-17:20

KURKUMA 18:00-18:30

WILLIS DRUMMOND 19:10-19:40

KRISTONAK 20:20-20:50

SUTAN 21:30-22:00

Ostirala 09

LUMI 11:00-11:30

ILARGI 12:10-12:40

AGUR 13:20-13:50

MIRUA 14:30-15:00

XSAKARA 15:40-16:10

MUGAN 16:50-17:20



KOKEIN 18:00-18:30

KEIA 19:10-19:40



MICE 20:20-20:50

EZPALAK 21:30-22:00

Larunbata 10

PASADENA 11:00-11:30

ASSATA 12:10-12:40

ASLA 13:20-13:50

KYXO 14:30-15:00

PERU GALBETE 15:40-16:10

ESTI MARKEZ 16:50-17:20



RUKULA 18:00-18:30

DUKKHA 19:10-19:40



BENGO 20:20-20:50

ØDEI 21:30-22:00

Igandea 11

ARIMA SOUL 11:00-11:30

FUFU 12:10-12:40

ORBEL 13:20-13:50

TXOST! 14:30-15:00

WATSON 15:40-16:10

IRTERA 16:50-17:20



MERINA GRIS 18:00-18:30

JANUS LESTER 19:10-19:40

BURUTIK 20:20-20:50

MAIRU 21:30-22:00

ETXEBIZITZEN ENERGIA-AUTODIAGNOSTIKOA

“Norberak bere etxebizitzaren autodiagnostikoa egin ahal izateko irizpideak emango ditugu”

Debegesa etxebizitzaren energia-autodiagnostikorako egiaztapen-zerrenda lantzen dihardu.

Zergatik jarri duzue martxan ekimen hau?

Energiaren prezioak demaseko gorakada izan du eta Debegesan ditugun Birgaitze- eta Energia-zerbitzuetan kontsulten gorakada egon dela ikusi dugu. Jendea arduratuta dago eta bi gauza jakin nahi dituzte batez ere: batetik, nola aurreztu dezaketen; eta bestetik, energia era berriztagarriago batean nola ekoiztu dezaketen. Beraz, etxe guztietara ezin garenez iritsi irtenbide pertsonalizatuak ematera, pentsatu genuen interesgarria izan daitekeela gida bat sortzea, norberak irizpide batzuk eduki ditzan, gero bere kabuz etxebizitzaren hasierako diagnostikoa egiteko.

Gida sortzeko orduan, zein informazio eskatzen diezue parte-hartzaileei?

Gida tutorizazio-prozesu baten bitartez sortzen dugu. Izan ere, esperientzia errealen bitartez sortzen da. Horretarako, prozesu honetan parte hartzeko prest dauden etxebizitzak behar ditugu. Izena ematen dutenean, enpresa bat euren etxebizitzetara joango da bisita egitera eta bizilagunek informazio bat eduki beharko dute prest. Hala nola, azken hilabeteetako faktura energetikoak eta kontsumo ohiturak. Bestetik, energia kontsumo iturri diren elementuak zeintzuk diren begiratu dute (argiteria, etxetresna elektrikoak...) eta elementu horiek nola erabiltzen diren informatzea garrantzitsua da gero planteatu duren ekintzak benetan eragingarriak izan daitezzen.

Gida horrek zein eduki izango ditu herritarrentzat?

Tutorizatzen ditugun etxebizitzek energiaren diagnostikoa izango dute. Bertan, etxebizitza horretara egokituta egongo diren ohituren, inbertsioen, energia berriztagarrien eta dirulaguntzen inguruko gomendioak eta ekin-tza-plan bat jasoko dira.



Zertarako balioko du horrek guztiak?

Lehentasunak markatzeko, eragin elementuak nun ditugun jakiteko eta, gutxi gorabehera, arlo energetikoan ekintzarik garrantzitsuenak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Gero, tutorizazio prozesuarekin ikasiko dugu informazio eraginkorra modu errazean nola eman daitezkeen eta, horrela, irizpide batzuk emanez hori jakinarazi nahi dugu, bakoitzak bere autodiagnostikoa egiteko baliabideak izan ditzan.

Etxebizitza gehiagok izena eman dezakete oraindik ekimen horretan?

Bai. Interesa dutenek agenda2030@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.

AZAROAK 25, OSTIRALA

-19:00. **Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

-19:30. **Beldur Barik** lehiaketaren sari bana-keta eta askaria Ispiluen gelan.

AZAROAK 26, LARUNBATA

-Goiz osoan, **Liburu Solidarioak**, udaletxeko arkupeetan.

-11:00. **Hitzaldia: Deba, historiaurreko bailara** Kultur Elkartearen. Hizlariak: Xabier Peñalver, Jose Antonio Mujika eta Asier Gomez.

-12:30. **Debako Musika Bandaren kontzertua**, elizako klaustroan.

AZAROAK 27, IGANDEA

-17:30. **Ipuin-kontaketa**. Emakumeenganako indarkeriaz ariko dira, Ispiluen gelan.

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

AZAROAK 29, ASTEARTEA

-16:30. **Euskaraz jolasean Bastiñuixan**, zumardiko kioskoan.

AZAROAK 30, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa kluba, Otto Pette** (Anjel Lertxundi), Ostolaza liburutegian.

ABENDUAK 4, IGANDEA

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

ABENDUAK 11, IGANDEA

-09:00. **Herriko ekoizle eta artisauen azoka**, Simon Berasaluze Plazan.

-12:00. **Bisita gidatua: Gotikoaren altxorra**, Debako Santa Maria eliza ikusteko. Irteera, turismo bulegotik hasita.

-16:30. **Umeentzako film emanaldia**, Zubi Guraso Elkartearen eskutik, Kultur Elkartearen.

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 18, IGANDEA

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 19, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, Foruen Plazan.

Nesken binakako X. Pala txapelketa

Azken txanpan sartu da Emakumeen Binakako X. Pala Txapelketa. Azaroaren 20an amaitu zuten ligaxka, eta talde bakoitzeko lau bikote onenek lortu dute azaroaren 24ean eta 25ean jokatuko diren final-laurdenetarako txartela. Abenduaren 17an jokatuko dira 1. eta 2. mailetako finalak baina aurretik finalerdiak (abenduaren 1ean) eta 3. eta 4. postua argitzeko partida (abenduaren 15ean) jokatuko dituzte.

Euskeraz Bagera

Zuhatza Euskara Elkarte, Debako Udala, Euskaraldia eta beste hainbat eragileren ekimenez antolatutako Euskeraz Bagera zikloa azaroaren 18an abiatu zen. Hala ere, egitarauak aurrera darrai eta abenduaren 10era bitartean hamaika jarduera egingo dira gurean euskara ardatz hartuta. Programazioaren nondik norakoak eta informazio guztia aldizkari honetako 13. orrialdean eskuragarri.

XVII. Tene Mujika Beka

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, XVII. Tene Mujika beka sortu dute. Antolatzaileek iragarri dutenez, aurtengo lan sarituak 6.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Abenduaren 11n bukatuko da lanak aurkezteko epea eta proiektuak artxiboa@deba.eus helbidera bidali beharko dira. Oinarriak www.deba.eus atarian.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

AZAROAK 25, OSTIRALA > Mutriku

- **Antzerkiak Blai!** zikloaren barruan, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezla-na, 20:00etan, Zabil Kultur Etxean. Sarrerak turismo bulegoan eta mutriku.eus atarian.

AZAROAK 30, ASTEAZKENA > Eibar

- **43. San Andres azoka**: 09:30ean hasita, nekazaritza eta jatorrizko deiturazko produktuen postuak, abeltzaintza azokaren gunea, txistulariak, aizkolariak, erromeria...

ABENDUAREN 11RA ARTE > Elgoibar

- Ermuan bizi den Angel Gil eskulturagilearen erakusketa ikusgai dago, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ordutegia: astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Burgoa Zuazo: azaroak 28, 29, 30 eta abenduak 1, 16, 18

Zalduegi: abenduak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO: azaroak 26 eta abenduak 17
ZALDUEGI: abenduak 3 eta 10



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa **T. 943 19 28 19**

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)



ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
i @adatsileak

ITURLAN, S.L. Iturgintza-Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



AHOLKULARITZA LIDERRA, TOKIKO ARIMAREKIN

ASESORÍA LIDER
CON ALMA LOCAL

Torrealday adituak, Gipuzkoan ere bai

Torrealdayk 35 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta hainbat herritan banatuta dagoen bulego-sare zabala. Enpresa handiei, enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu integrala eskaintzen diegu, kualifikazio handiko eta etengabeko prestakuntza dagoen profesional-talde baten eskutik. **Ondarroatik, Ermuatik eta Irungotik** gure bulegoetatik kalitate handiko zerbitzua eskaintzen dugu, hurbiltasuna eta konfiantza osoa eskainiz. Gainera, bezeroei beren jarduerari eragiten dieten berrikuntza gutzien berri ematen diegu, baita gure azpiegiturari eta gaitasunari esker jaso ditzaketen laguntzen eta diru-laguntzei buruzko informazioa ere. Jar zaitez gurekin harremanetan, eta inolako konpromisorik gabe informatuko zaitugu.



TicketBAI
GIPUZKOAN I EN GIPUZKOA

Torrealday
aditua

www.torrealday.es

1997 > 2022 >

Zuhaitza
25
urte
euskararen alde



egin zaitez
ZUHATZAKIDE!

www.labur.eus/Zuhatza_EginBazkide